Hau guztia kontuan harturik, Getxoko EH Bilduk honakoa proposatzen dio udalbatzari, bere onarpenerako:

Considerando todo lo anterior, el grupo EH Bildu de Getxo realiza la siguiente propuesta ante el pleno, para su aprobación:

1.- Getxoko Udalak kruzeroek sortzen duten emisio eta kutsaduraren ingurumen- azterketa abiatuko du, kostaldean eta getxoztarren osasunean zer nolako eragina duen aztertzeko. Horretarako beharrezkoa den diru-saila gordeko du.

1.- El Ayuntamiento de Getxo pondrá en marcha la realización de un análisis medioambiental de la contaminación y de las emisiones que crean los cruceros, para valorar el impacto que ello causa en la saludad de la costa y de la población de Getxo. Dispondrá para ello del montante económico necesario.

2.- Getxoko Udalak eskaera egingo dio Bilboko Portu Agintaritzari eta Eusko Jaurlaritzari kruzeroen sektorea gehiago sustatu ez dezaten, garraiobide hauek sortzen duten ingurumen-inpaktua aztertu arte.

2.- El Ayuntamiento de Getxo realizará una petición al Gobierno Vasco y a la Autoridad Portuaria de Bilbao para que no se promueva el sector de los cruceros hasta que se analice el impacto medioambiental de ese tipo de transporte.

Nerea Guijarrubiak adierazi du gurutzaontzien iritsiera albiste positibo gisa transmititzen dela, baina sakonean aztertzen badugu, sufre-emisioengatik kutsadura-eragin negatiboak dituela ikusiko dugu, mozioan adierazi den

Nerea Guijarrubia indica que la llegada de cruceros es noticia que se transmite como positiva pero que si se analiza más a fondo existen consecuencias negativas de contaminación por emisión de azufre, como se ha indicado

bezala. Gurutzaontziak porturatu ohi diren tokietan airearen kutsadura beste toki batzuetan baino guztiz handiagoa da, eta toki horietan kalteak arintzeko erabakiak hartzen ari dira. Bere ustez, Getxon gurutzaontziek eragiten duten inpaktua baloratu behar da, eta horretarako ingurumen-eraginari buruzko azterlan bat egin beharra dago, hartara, gurutzaontziek Getxoko herritarren bizitza-kalitatean eragina ote duten jakiteko. Horregatik aurkeztu dute mozioa, udalari Getxoko airearen kalitatea zaintzea dagokiolako.

en la moción. En puntos habituales de atraques de cruceros la contaminación del aire es muy superior a otros puntos y en esos sitios se están adoptando decisiones para mitigar esos efectos. Cree que en Getxo hay que valorar el impacto que producen los cruceros y ello exige un estudio de impacto ambiental para ver los efectos de los cruceros en la calidad de vida de la ciudadanía de Getxo y para ello han planteado la moción ya que al ayuntamiento también le compete velar por la calidad del aire de Getxo.

Ignacio Roblesek adierazi du udalak ingurumen-eragin negatiboak dituen turismo-eredu bat babesten duela; hori guztia ehun pertsona inguruk Bilbon erosketak egin ditzaten baino ez. Mozioan eskatzen dena gutxieneko eskakizuna dela uste dute, eta tokiko merkatariei mesede egingo dien turismo-eredu jasangarri bat defendatzen dute. Zuhurtziazko printzipio gisa mozioa ez babestea arduragabekeria bat dela uste dute.

Ignacio Robles indica que el ayuntamiento apoya un modelo de turismo que tiene efectos ambientales negativos y todo ello para que unos cientos de personas realicen compras en Bilbao. Les parece que lo que pide la moción es lo mínimo y abogan por un modelo de turismo sostenible que beneficie al comercio local. Por un principio de precaución no apoyar la moción le parece irresponsable.

Carmen Díazek dio mozioaren aurka bozkatuko dutela, izan ere, azterlana egitea ez dagokio Getxoko Udalari, baizik eta Itsas Kapitaintzari. Jarrera horrek ez du esan nahi udalari gaia interesatzen ez zaionik, baizik eta gurutzaontzien jardueraren ondoriozko emisioak kontrolatzeko lana administrazio zentralak eta euskal administrazioak partekatzen duten eskumena dela. Gainera, bat dator nazioarteko araudiarekin, izan ere, uraren kalitatea oso ona dela dioten azterlanak egin dira. Eskatzen diren azterlanak dagoeneko eginda daude eta gurutzaontziak porturatzen direnean balioak nabarmen desberdinak ez direla ondorioztatu da.

Carmen Díaz manifiesta que van a votar en contra de la moción ya que la realización del estudio que piden no compete al Ayuntamiento de Getxo sino a la Capitanía Marítima. Esta postura no significa que al ayuntamiento no le interese el tema sino que el control de emisiones derivadas de la actividad de cruceros es una competencia compartida por la administración central y por la administración vasca y está ajustada a la normativa internacional, realizándose estudios que determinan una alta calidad de las aguas. Los estudios que solicitan están realizados y concluyen que no hay valores significativamente distintos cuando existen atraques de cruceros.

EH Bilduk txanda hartzeko agertu duen

Ante la intención de utilizar un turno

asmoa ikusita, eta Alkatetzak eskatuta, idazkari nagusiak berriki onetsia izan den Udal Erregelamendu Organikoaren interpretazioa azaldu du.

por parte de EH Bildu y a petición de la Alcaldía, el Secretario General explica la interpretación del Reglamento Orgánico Municipal recientemente aprobado en esta cuestión.

Ibon Rodríguezek, EH Bilduren izenean, bere desadostasuna adierazi du idazkari nagusiak emandako interpretazioarekin.

Ibon Rodríguez, en nombre de EH Bildu, manifiesta su disconformidad con la intepretación dada por el Secretario General.

Javier Elorzak, PPren izenean, adierazi du sektore publikoa aberastasuna sortzen duten inbertsioen bidez ari dela merkataritzari laguntzen, eta kasu honetan Getxon gurutzaontziak porturatzea ahalbidetu da. Horiek horrela, bidaia-antolatzaileekin jardun beharra dagoela adierazi du, eskaintzen dituzten zirkuitutetan Getxo ezagutzera emateko. Mozioak autoak eta gurutzaontziak nahasten dituela uste du, gainera, trenei buruz ere mintzatzen da, baina EH Bilduk ez du zehazten zer treni buruz ari den; izan ere, AVEren kontrako jarrera dauka eta ez ditu gaitzesten abiadura handiko trenak jasan dituen sabotajeak. Gurutzaontzien kutsadurari buruz hitz egiten dute eta ez dute aipatu ere egiten itsas milia bakar batera mota guztietako ontziak hartzen dituen superportua dagoela. Aberastasuna eta garapena sortzeko zer beste alternatiba planteatzen duten galdetu die. PPk turismo arduratsua sustatzen duten politika aktiboen alde egingo duela adierazi du. Amaitzeko, esan du gaur egun ingurumen-eraginak minimizatzen dituzten gurutzaontziak eraikitzen ari direla, eta gurutzaontzi mota horiek babestuz akordioetara iritsi ahalko liratekeela.

Javier Elorza en nombre del PP manifiesta que el sector público está apoyando al comercio con inversiones que generan riqueza y en este caso posibilita el atraque de cruceros en Getxo e insiste en que hay que actuar ante los turoperadores que programan los cruceros para visibilizar Getxo en sus circuitos. Cree que la moción mezcla coches con cruceros y además habla de trenes sin concretar a cuáles se refiere EH Bildu, ya que se opone al AVE ni condena los sabotajes que ha sufrido el tren de alta velocidad. Hablan de la contaminación de los cruceros y obvian que en una milla marina está el Superpuerto que ahora recoge todo tipo de barcos. Pregunta qué alternativa plantea para la creación de riqueza y desarrollo. Manifiesta que encontrarán al PP en las políticas activas que promuevan un turismo responsable. Finaliza indicando que hoy se están construyendo cruceros que minimizan los daños ambientales y que en el apoyo a este tipo de cruceros podrían llegarse a acuerdos.

Joseba Arreguik adierazi du, erakunde bakoitzak dituen eskumenak errespetatuz, Portuko Agintaritza dela bere eginbeharrak betetzen ari dena: bere jardueren ondoriozko ingurumen-

Joseba Arregui manifiesta que desde el respeto a las competencias de cada entidad es la Autoridad Portuaria la que está cumpliendo sus obligaciones y tiene identificados los efectos

eraginak identifikatuta dauzka eta kalteak arintzeko neurriak zehaztu ditu. Portuko Agintaritzak egiten dituen jarduketen berri eman du. 80ko hamarkadaz geroztik, portuaren kontrolpeko espazioetan turismo- eta kirol-jarduerak sustatzeko lan egiten ari da Getxo. Gurutzaontziak Bilboko Portuko trafikoaren % 1,7 dira. Jarduera ekonomiko jasangarri baten alde lan egiten jarraitzen dute.

ambientales de sus actividades con determinación de medidas para mitigar los efectos. Da cuenta de actuaciones que realiza la Autoridad Portuaria. En Getxo desde los años 80 se está avanzando en impulsar la actividad turística y deportiva en los espacios bajo control portuario. Los cruceros son el 1,7% del tráfico en el Puerto de Bilbao. Siguen trabajando por una actividad económica sostenible.

Nerea Guijarrubiak adierazi du mozioaren helburua honako hau dela: gurutzaontzien jarduerak Getxoko ingurumenean duen eraginari buruzko azterlan bat egiteko eskatzea. Datu orokorrak egun badaude, baina datu zehatzagoak eskuratu nahi dituzte. Ingurumena defendatzeko aurrerapausoetan borondate politikoa behar dela uste du, eta eskatu duten azterlanaren bidez etorkizuneko jarduketak zehaztu ahalko liratekeela pentsatzen du. PPri eskatu dio mozioan zentra dadila, izan ere, autoen eta gurutzaontzien arteko konparazioa lizentzia literario bat baino ez da, ez tranpa bat. Amaitzeko, talde guztiei eskatu die mozioaren bidez eskatzen den horretan zentra daitezela.

Nerea Guijarrubia manifiesta que la moción se limita a pedir la realización de un estudio del impacto ambiental en Getxo por la actividad de los cruceros. Existen datos generales y piden disponer de mayor concreción. Cree que se trata de voluntad política en avanzar en la defensa ambiental y el estudio que solicita valdría para en su caso definir actuaciones a futuro. Pide al PP que se centre en la moción y la comparación de coches y cruceros no es una trampa sino una licencia literaria. Finaliza pidiendo a todos los grupos que se centren en lo que pide la moción.

Ignacio Roblesek adierazi du mozioaren aurka bozkatzeko aitzakiak ematen ari direla. Mozioaren bidez azterlan bat egiteko eskatzen da, bere ustez egingarria dena. Portuko trafikoaren baitako ontzi bakoitzaren eraginak modu berean ezin baloratu daitezkeela uste du, ontzi bakoitzaren karga eta eginkizuna kontuan hartu behar direlako.

Ignacio Robles manifiesta que se han dado excusas para votar en contra. La moción pide que se realice un estudio que estima que se puede hacer. Opina que no se puede valorar igual en el tráfico portuario, los efectos de cada barco, ya que hay que atender a qué carga y función realiza cada uno.

Carmen Díazek adierazi du Getxon gasen emisioa hartzeko puntuak daudela eta informazio horrekin egindako txostenak eskuragarri daudela. Era berean, adierazi du Getxori buruzko datuen arabera ura eta

Carmen Díaz indica que existen puntos de toma de emisión de gases en Getxo y los informes derivados se pueden conseguir, indicando que los datos relativos a Getxo no denotan una contaminación de agua ni del aire.

airea ez daudela kutsatuta.

Javier Elorzak esan du Getxo superportuaren eremuaren baitan dagoela eta, beraz, ingurumen-eragina aztertu nahi bada, itsasoko trafikoaren % 1aren kutsadura aztertzea ez dela logikoena. Garraiobidea da kutsatzen duena, eta ez garraioaren karga.

Javier Elorza manifiesta que Getxo forma parte del ámbito del Superpuerto y si se quiere estudiar el impacto ambiental, lógico no es estudiar la contaminación del 1% del tráfico marítimo. Lo que contamina es el medio de transporte, barco o vehículo, pero no el contenido del transporte.

Joseba Arreguik adierazi du airearen kalitateak kezkatu behar gaituela, airea aztertuta dago eta ez da udal-demarkaziotan zatikatzen.

Joseba Arregui manifiesta que lo que debe preocupar es la calidad del aire y está estudiado y no se fragmenta por demarcaciones municipales.

Mozioa bozkatu da eta ukatu egin da aldeko 6 botorekin (EH Bildu eta Elkarrekin Podemos) eta kontrako 19 botorekin (EAJ, PP eta PSE-EE).

Sometida la moción a votación es rechazada al obtener 6 votos a favor, EH Bildu, Elkarrekin Podemos; 19 votos en contra, PNV, PP, PSE-EE.

**127.- GETXO-EH BILDU ALDERDIKO UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: ALOKAIRUZKO ETXEBIZITZA SOZIALEN PARKEA ERATZEAREN ALDE.**

**127.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL EH BILDU FAVORABLE A LA CREACIÓN DE UN PARQUE DE VIVIENDAS SOCIALES DE ALQUILER.**

Ibon Rodriguezek ondorengo mozioa irakurri du:

Ibon Rodríguez da lectura a la siguiente moción:

Urteak daramatzagu esaten etxebizitzaren arazoak ikuspegi poliedrikoa duela, ez dela konponduko neurri soil batekin baina beharrezkoak diren neurri guztien artean agian alokairuzko etxebizitza sozialen beharrak lehentasuna izan behar du, are gehiago, Udalak etxebizitza parkea izan beharko luke lehentasun, alokairuan jartzeko herritarren beharren arabera. Noski, alokairuaren aldeko apustu horrek baztertu egin beharko luke, gure ustez, urte batzuen buruan etxebizitza horien jabetza eskuratzeko aukera.

Llevamos años recalcando que el problema de la vivienda tiene una perspectiva poliédrica; se trata de un problema que no se solucionará con una única medida, sino que, posiblemente, de entre todas las medidas necesarias, deberán prevalecer las necesidades de alquiler de vivienda social, aún más, el parque de viviendas debería ser una prioridad para el ayuntamiento, para ponerlas en alquiler en base a las necesidades de la ciudadanía. Esta apuesta a favor del alquiler debería dejar de lado, bajo nuestro punto de vista, la opción de poder adquirir la propiedad de esas viviendas en un plazo de tiempo de

algunos años.

Duela bi urte etxebizitza plana aurkeztu genuen, etxebizitza jardunaldi haietan beste herri batzuetan egiten ari ziren ereduak jaso genituen. Denek nabarmentzen zuten alokairuan jartzeko etxebizitza publikoen beharra. Antza, astuna izateak, mundu mailan egiten dena ikusteak edota etxebizitzen burbuilak sortu zituen kalteak ezagutzeak eraman gaitu guztiok, azkenik, onartzera alokairuzko etxebizitza publikoen beharra dugula.

Hace dos años presentamos el plan de vivienda, y en aquellas jornadas sobre vivienda pudimos recabar modelos que se están aplicando en otros municipios. Todos los modelos recalcaban la necesidad de contar con viviendas públicas para ponerlas en alquiler. Parece ser que el hecho de insistir, el hecho de ver lo que ha ocurrido a escala mundial o, tal vez, el hecho de dar a conocer las consecuencias que ha creado la burbuja de la vivienda ha hecho que, finalmente, todos y todas aceptemos que es necesario contar con viviendas públicas de alquiler.

Ekainaren 25ean Eusko Alderdi Jeltzaleak eta Alderdi Sozialistak aurkeztu zuten gobernu akordio hitzez hitz dio: "*Etxebizitzara sarbidea iza/ea bermatzea, beharrizan guztiak aztertuz, udal hirigtntza-politikak indartuz gizane-eskubideak babesteko ikuspuntuarekin eta beharrizanen aurrean irtenbideak eskainiko dituen Etxebizitza Plan berria (2020- 2035) idatziz, etxebizitzen ondare pub/ikoa areago/uz eta alokairu sozialaren a/delco apustua eginez.*"

El acuerdo de gobierno que presentaron el 25 de junio el Partido Nacionalista Vasco y el Partido Socialista dice así, literalmente: "Garantizar el acceso a la vivienda, estudiando todas las necesidades, reforzando las políticas urbanísticas municipales con una visión de defensa de los derechos sociales y redactando un nuevo Plan de Vivienda (2020-2035) que ofrezca soluciones a las distintas necesidades basado en el aumento del patrimonio público de vivienda y la apuesta por el alquiler social".

Ematen du alokairu sozialaren alde egiteko asmoa dagoela eta hori albiste ona da. Baina Getxok eta getxoztarrek, eta batez ere getxoztar gazteek, ez dute denborarik. 2020-2035 plangintza aipatzen da, horrek esan nahi du ustezko plangintza hori egikaritzen hasten den arte gutxienez 4 edo 5 urte pasatuko direla, eta gure jendeak, gure gazteek ezin dute denbora hori itxaron. 4, edo 5 urteetan bizitza proiektuak hasi eta garatzen baitira, askotan Getxotik urrun eta ondorioz Getxok zaharkitutako hiri bilakatzen jarraitzen du.

Parece vislumbrarse una intención de trabajar a favor del alquiler social, lo cual resulta ser una buena noticia. Pero Getxo y su ciudadanía, y sobre todo la ciudadanía joven, no cuenta con más tiempo. Se menciona la planificación para el periodo 2020-2035, lo cual quiere decir que para cuando comience el desarrollo de ese supuesto plan habrán pasado ya por lo menos 4 o 5 años, y nuestra gente, nuestros/as jóvenes no pueden esperar tanto tiempo. En ese periodo de 4 o 5 años los proyectos vitales comienzan y se desarrollan, muchas veces lejos de

Getxo, y, por consiguiente, Getxo sigue convirtiéndose en una ciudad envejecida.

Baina badaukagu aukera plan horren ezinbesteko neurriak azkartzeko, badauzkagu abiatutako exekuzio unitateak, eragin dezagun horiengan beharrezko aldaketak. Bide horretan Getxoko Osoko Bilkurak zera adierazten du.

Pero tenemos la oportunidad de agilizar las medidas necesarias de ese plan, tenemos las unidades de ejecución iniciadas, podemos aplicar las necesarias modificaciones en las citadas unidades. En esa línea, el Pleno del Ayuntamiento de Getxo quiere expresar lo siguiente:

1. Gobernu taldeari agintzen dio indarrean dauden Exekuzio Unitatean berraztertzea eta, gutxienez, aurreikusita dauden salmentarako Babes Ofizialeko etxeak eta prezio tasatutako etxeak udal jabetza izango duten alokairu sozialerako etxebizitzak bihurtzea. Derrigorrez hauek dira aztertu beharko dira indarrean dauden unitateak: Ormaza, Benantzio, Sarrikobaso eta Puerto Orduña.

1. Encomendar al equipo de gobierno que se analicen nuevamente las unidades de ejecución en vigor y que, por lo menos, aquellas viviendas de protección oficial y de precio tasado que esté previsto poner a la venta se conviertan en viviendas para alquiler social de propiedad municipal. Las siguientes unidades en vigor deberán analizarse obligatoriamente: Ormaza, Benantzio, Sarrikobaso y Puerto Orduña.

2. Gobernu taldeari agintzen dio aipatu aldaketa egiteko egin behar diren azterketa eta arau moldaketa guztiak egin ditzala plangintza aurrera atera ahal izateko.

2. Encomendar al equipo de gobierno que realice todos los análisis y modificaciones de normas necesarias para poder llevar a cabo la planificación.

3. Gobernu taldeari agintzen dio plangintza aurrera ateratzeko behar diren bitarteko ekonomikoen azterketa eta beraien finantziazio plangintza prestatu dezala Osoko Bilkura honek onar dezan.

3. Encomendar al equipo de gobierno la realización del análisis de los recursos económicos necesarios para desarrollar la planificación y la preparación de la planificación financiera, para la aprobación por parte de este pleno.

Ibon Rodríguezek adierazi du etxebizitza-plan berriak aurrera eramateko jarduketak ezin direla gehiago atzeratu. Mozio honek hitzetatik ekintzetara pasatzea ahalbidetzen du. Etxebizitzen kudeaketari dagokionez, EAJ alderdiak pixkanaka-pixkanaka ezkerraren irizpideak bere gain hartu dituela ikusi dute. Baina garrantzitsuena ez da

Ibon Rodríguez explica que no se puede demorar más adoptar actuaciones en la espera de nuevos planes de vivienda. La moción posibilita pasar de las palabras a los hechos. Han visto que el PNV ha ido asumiendo poco a poco criterios de la izquierda en la gestión de la vivienda. Lo importante no es quien proponga las actuaciones sino actuar. La

jarduketak proposatzea, baizik eta jarduketei ekitea. Etxebizitzaren arazoa ez da mota bateko neurriekin batekin bakarrik konponduko. Gobernu-talde berriak agindu duen etxebizitza-plana ondo iruditzen zaie, baina uste dute ez dela gehiago itxaron behar; izan ere, gazteek Getxotik alde egitea saihestu behar dute, horrek, besteak beste, getxoko biztanleria zahartzea dakarrelako. Egiten ari direnarekin alokairura bideratutako etxebizitza sozialak eskaintzea planteatu dute. Ildo horretatik, uste dute aurrekontua egon badagoela horretarako, borondate politikoa baino ez da behar. Dagoeneko programatuta dauden etxebizitzetan alokairu soziala sustatzeko etxebizitza-politika bat gauzatzeko aukera bat da.

problemática de la vivienda no se soluciona solo con un tipo de medidas. Les parece bien el plan de vivienda que ha prometido realizar el nuevo equipo de gobierno pero no se puede esperar a que se realice ya que hay que atajar que la juventud se vaya de Getxo con lo que supone, entre otras cosas de envejecimiento de la población getxotarra. Plantean que lo que se está haciendo se destine a viviendas sociales en alquiler y opina que existen condiciones presupuestarias para ello, dependiendo de la voluntad política. Es una oportunidad para poner en práctica en las viviendas que están programadas y se van a realizar una política de vivienda que fomente el alquiler social.

Paula Amievak adierazi du Elkarrekin Podemosek mozioa babestuko duela; izan ere, bat dator eurek daukaten etxebizitzaren diagnostikoarekin eta Getxoko gazteriari irtenbide bat emateko nahitaezkoa da. Horrez gain, etxebizitza horiek Getxoko migratzaileei ere ireki behar zaizkiela uste du, horiei esker egiten ari garelako aurre udalerriko gazteek herritik alde egitearen arazoari.

Paula Amieva manifiesta que Elkarrekin Podemos apoyará la moción ya que coincide con el diagnóstico de vivienda que tienen y es necesario para dar una salida a la gente joven de Getxo, pero también estima que hay que abrir esas viviendas para las personas migrantes de Getxo, que son actualmente las que están contrarrestando la fuga de gente joven del municipio.

Carmen Díazek esan du alderdi guztiak daudela kezkatuta kolektibo batzuek etxebizitza bat eskuratzeko dauzkaten arazoekin, baina alderdi guztiak ez datoz bat irtenbidearekin. Alderdi sozialista lan egitearen alde dago, eta ez kexatzearen alde: egitateak lortzeko gure arteko itunak behar ditugu. Gobernu-talde berriak etxebizitza-plan berri bat egingo du, baina horrek ez du esan nahi beste administrazio publiko batzuekin batera elkarlanean arituko ez direnik. Babestutako etxebizitza-mota asko daudela esan du. Etxebizitza-motaren arabera betekizun batzuk edo besteak eskatzen dira, esaterako, errenta-maila, alokairu sozialeko

Carmen Díaz indica que todos los grupos comparten la preocupación por el acceso a la vivienda que es difícil para muchos colectivos, pero no todos los grupos coinciden en la solución. El partido socialista está en el trabajo, no en la queja, en el pacto para lograr hechos. El nuevo equipo de gobierno va a realizar un plan de vivienda, lo que no supone que no vayan a actuar en colaboración con otras administraciones públicas. Indica que hay diversos tipos de viviendas protegidas. Destaca que según qué tipo de viviendas se exigen unos requisitos entre los que incluyen también los niveles de renta, lo que limita a algunos

araubidean etxebizitzak eskuratzea mugatzen duena. Bere ustez, batera lan egin behar dugu, eta mozioak aurkeztea ez da bidea. Aitzitik, akordioetara heldu behar gara, EAJ, PSE-EE eta PP alderdiek HAPOren harira lortu dutenaren modukoak, non arazoari aurre egiteko hainbat formula aztertzen diren. Halaber, gogorarazi du EH Bildu akordio horien guztien aurka agertu dela.

adquirientes el acceso a viviendas en alquiler social. Opina que es necesario trabajar conjuntamente pero no a golpe de mociones sino a través de acuerdos como el alcanzado por el PNV, PSE-EE y PP respecto al PGOU, donde se estudian diferentes fórmulas para incidir en la problemática de vivienda, recordando que en todos estos acuerdos EH Bildu se ha posicionado en contra.

Eduardo Andradek esan du bozeramaile sozialistak adierazitakoarekin bat datorrela, beraz, mozioaren kontra bozkatuko dute. Eta gogorarazi du aurreko legegintzaldiko etxebizitza-garapena PPren babesari esker soilik izan zela posible.

Eduardo Andrade manifiesta que está de acuerdo con lo manifestado por la portavoz socialista por lo que votarán en contra y recuerda que el desarrollo de vivienda en la anterior legislatura fue posible por el apoyo del PP.

Alvaro Gonzálezek azken legegintzaldian etxebizitzaren arloan egindako jarduketen berri eman du, halaber, etxebizitza-motek dituzten legezko zehaztapenak azaldu ditu, baita horiek jasangarritasun ekonomikoarekin duten harremanaren berri eman ere. Mozioan aipatzen diren jarduketei dagokienez, egungo egoera zein den azaldu du, zeinak etxebizitza sozialak, alokairuan nahiz salmentan, barne hartzen dituen. Azken legegintzaldian salto kuantitatibo eta kualitatibo handia eman dugu EAJ eta PSE alderdiek etxebizitzari buruz egin duten itunari eta PPk emandako babesari esker, baita udal-zerbitzuek egindako lanari esker ere. Etxebideren datu batzuk eskaini ditu, zera islatzen dutenak: Getxoko eskatzaileen erdiak baino gehiagok etxebizitza bat jabetzan izateko eskatzen du.

Alvaro González indica las actuaciones realizadas en la última legislatura en materia de vivienda además de dar cuenta de determinaciones legales de tipos de viviendas y sus consecuencias así como su relación con la sostenibilidad económica. Respecto a las actuaciones citadas en la moción da cuenta de la situación actual que recoge viviendas sociales en venta o alquiler. En la última legislatura se ha dado un importante salto cuantitativo y cualitativo gracias al pacto PNV, PSE sobre vivienda y el apoyo del PP y también al trabajo de los servicios municipales. Da datos de Etxebide en el que la demanda de vivienda en Getxo se centra en vivienda en propiedad en más de la mitad de los solicitantes.

Ibon Rodríguezek uste du etxebizitza publikoa alokatzea giza eskubide bat dela eta ez dela irizpide ekonomikoekin begiratu behar. Mozioa ez da kexa bat, proposamen bat baizik. PSE-EEko bozeramaileari aurretik udalean

Ibon Rodríguez cree que la vivienda pública en alquiler es un derecho social y no se debe de mirar con criterios económicos. La moción no es una queja sino una propuesta. Critica a la portavoz del PSE-EE que desconozca el

egindako lana, bere alderdiaren ere, ez jakitea kritikatzen dio, eta agian bere alderdi barruko hauteskudeen eraketan murgilduta egon delako izdan da. Aurreko legegintzaldian EH Bilduk gobernu-taldearekin lortutako akordio bati esker Getxon hutsik dauden etxebizitzen inguruko azterlan bat egin da, eta bozeramaile sozialistak aipatu duen guztia (etxebizitza partekatuak, lonjak etxebizitza bilakatzea eta abar) dagoeneko aztertuta dago. Babestutako etxebizitzak salmentan jartzea ez da irtenbidea. Irizpide hori, gainera, adituek berresten dute. Etxebizitzak alokairuan jartzea, ordea, bada irtenbide bat. Ildo horretatik, esan du EH Bilduk urteak daramatzala akordioen bidez arazo horren inguruan lan egiten. Amaitzeko, adierazi du mozioa ez dela kexa bat, proposamen bat baizik.

trabajo realizado en el ayuntamiento anteriormente, incluso el realizado por su partido, quizá porque se ha dedicado a organizar las elecciones primarias de su partido. Se ha realizado un estudio de vivienda vacía en Getxo gracias al acuerdo de EH Bildu con el equipo de gobierno de la anterior legislatura y todo lo que la portavoz socialista ha indicado sobre viviendas compartidas, conversiones de lonjas, etc. está ya estudiado. Opinan que la vivienda protegida en venta no es una solución, criterio que está además ratificado por los expertos mientras que sí es una solución la vivienda en alquiler. Manifiesta que EH Bildu lleva años trabajando en la problemática de la vivienda llegando a acuerdos. Finaliza indicando que la moción no es una queja sino una propuesta de la oposición.

Paula Amievak esan du Elkarrekin Podemos PSE-EErekin ados dagoela irtenbide integralen beharrari dagokionez. Mozioen aurka sistematikoki ez bozkatzea espero du, oposizioak proposamenak aurkezteko daukan bide bakarra delako. Etxebizitzak jabetzan izateko eskaria ez da zehatza, izan ere, halakoak planteatu izan direnan ikusi da jende askok ezin duela etxebizitza bat erosi. Gobernu-taldeak ez badu talde politikoekin eztabaidatzeko espaziorik irekitzen, orduan, oso zaila da oposizioko taldeek euren proposamenak gobernu-taldearekin partekatzea.

Paula Amieva manifiesta que Elkarrekin Podemos está de acuerdo con el PSE-EE en la necesidad de soluciones integrales. Espera que no se vote en contra de las mociones por sistema, ya que es el único cauce de presentación de propuestas que tiene la oposición. La demanda de vivienda en propiedad no es ajustada ya que se ha visto que cuando se ha planteado ha habido muchas personas que no han podido acceder a la compra de la vivienda. Si el equipo de gobierno no abre espacios de debate con los grupos políticos es complicado que los grupos de la oposición compartan las propuestas del equipo de gobierno.

Carmen Díazek gaitzetsi egin du kritika politikoetatik kritika pertsonaletara igaro izana. Ez du ulertzen zergatik aurkezten diren mozioak kexa modura, baina berriro dio EH EH Bilduk etxebizitzei buruzko hainbat proposamenen aurka bozkatu zuela. Gobernu-taldearen eta talde

Carmen Díaz critica que se pase de críticas políticas a críticas personales. No entiende las mociones como quejas pero insiste en que EH Bildu votó en contra de diferentes propuestas sobre vivienda. Reclama tiempo para demostrar el trabajo del equipo de gobierno y de cada grupo en esta

bakoitzaren lana erakusteko denbora eskatu du.

cuestión.

Mozioa bozkatu da eta ez da onartu, aldeko botoak 6 izan baitira (EH Bildu, Elkarrekin Podemos) eta aurkakoak 19 (EAJ, PP, PSE-EE).

Sometida la moción a votación es rechazada al obtener 6 votos a favor, EH Bildu, Elkarrekin Podemos; 19 votos en contra, PNV, PP, PSE-EE.

**128.- GETXO-EH BILDU ALDERDIKO UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: KLIMA ALDAKETAREN AURKA KONPROMIZO ZEHATZAK HARTZEA.**

**128.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL EH BILDU S/ LA ASUNCIÓN DE COMPROMISOS CONCRETOS CONTRA EL CAMBIO CLIMÁTICO.**

Nerea Guijarrubiak ondorengo mozioa irakurri du:

Nerea Guijarrugia da lectura a la siguiente moción:

Larrialdi Klimatikoa datozen urte eta hamarkadetako agenda baldintzatzera etorri da gure ongizatearentzako mehatxu nagusienetarikoa baita, benetako zibilizazio erronka bat. Mundu mailako eta Euskal Herriko egoera eta joerak ez du baikortasunerako tarte handiegirik uzten, are gutxiago geldotasunerako. Gazteentzako dagoeneko kezka nagusia bihurtu da, ez bakarrik larrialdia, baita gaiari ematen zaion erantzun politiko eskasa ere.

La emergencia climática ha llegado para condicionar la agenda tanto de los próximos años como de las próximas décadas, ya que es una de las mayores amenazas para nuestro bienestar, un verdadero desafío para toda la civilización. La situación y la tendencia tanto en Euskal Herria como a nivel mundial no deja margen para el optimismo, y mucho menos para la pasividad. Se ha convertido en la principal preocupación para los/as jóvenes, no solamente la emergencia climática, sino también la escasa respuesta política que se le está dando a esta cuestión.

Azken urte luzeetan komunitate zientifikoak aldaketa klimatikoaren bilakaeraren inguruko abisuak eta jakinarazpenak igorri ditu, Aldaketa klimatikoa, Berotegi Efektuzko Gasen isuri masibo baten ondorioz gertatzen ari da, eta isuri horien arrazoi nagusia, bakarra ez bada ere, gure metabolismo sozioekonomikoa mantentzeko erretzen ditugun baliabide fosilen erabilpenean datza. Aldaketa klimatikoa, beraz, guk eragiten dugu nagusiki, eta dagoeneko ondorioak atzematen hasiak gara.

Durante los últimos años la comunidad científica ha alertado sobre el desarrollo del cambio climático; el cambio climático está ocurriendo como consecuencia de las emisiones masivas de gases de efecto invernadero, y la principal razón de esas emisiones masivas, aunque no sea la única, radica en el uso que hacemos de los recursos que quemamos para sostener nuestro metabolismo socio-económico. El cambio climático, por tanto, lo generamos nosotros/as mismos/as, y

sus consecuencias han comenzado ya a dejarse notar.

Urtez urte argitaraturiko txostenetan, egoera kaskartzen ari denaren zantzuak ditugu, Nazioarteko hainbat erakunde eta lantaldeek argitaratzen dituzten txostenetan gero eta argiago esaten da klima eta energía politiketan, eta ondorioz gure egunerokotasunean, eraldaketa sakon bat, iraultza bat, eman behar dela, baldin eta egoerari aurre egin nahi baldin badiogu eta aldaketa klimatikoaren efektu bortitzenak pairatu nahi ez baditugu, 2018ko urrian, IPCC Klima Aldaketari Buruzko Gobernu Arteko Taldeak, plazaraturiko txosten berezi batean, tonua altxa zuen indarrean dauden politikek behar besteko anbiziorik ez dutela salatuz, eta elektrizitatearen, nekazaritzaren, garraioaren eta industriaren sektoreetan aurrekaririk gabeko aldaketak eskatuz.

En los informes publicados cada año se muestran indicios de que la situación está empeorando, en varios informes publicados por instituciones y grupos de trabajo internacionales cada vez se recalca de manera más clara que en políticas de energía y clima y, por ende, en nuestro día a día, debemos llevar a cabo una transformación profunda, una revolución, si queremos hacer frente a esta situación y si no queremos enfrentarnos a los peores efectos del cambio climático; en octubre de 2018, el Grupo Intergubernamental de Expertos sobre el Cambio Climático publicó un informe especial en el que elevó el tono respecto a esta problemática, denunciando que las políticas en vigor no son suficientemente ambiciosas; asimismo, se reclamaron cambios sin precedente alguno en los sectores de la electricidad, la agricultura, el transporte y la industria.

2018ko azaroan, Nazio Batuen Ingurumen Panelak aditzera emandako txostenak egoera larria dela ohartarazten du, esfortzuak areagotzen ez badira hondamendira goazela azpimarratuz

En noviembre de 2018 el informe del Panel Medioambiental de las Naciones Unidas alertó de que la situación era muy grave, recalcando que, en caso de no aumentar los esfuerzos, nos dirigíamos a una situación de destrucción.

Gaia bere osotasunean ikusirik, argi dago ataka batean gaudela eta orain arte proposatu eta egindakoa berraztertu beharrean gaudela. Ahal dela, eta industria iraultza aurretiko egoerarekin alderatuta, 1,5ºCko tenperatura igoera ez gainditzea helburutzat zuen 2015eko Parisko Akordioa betetzeko, orain arte emandako pausoak guztiz ez-nahikotzat jo beharrean gaude.

Observando el tema en su totalidad, está claro que nos encontramos en una encrucijada y que debemos volver a analizar todo aquello que se ha propuesto y realizado hasta este momento. Debemos resolver que los pasos dados hasta ahora para cumplir con los objetivos del Acuerdo de París del 2015 no han sido suficientes, acuerdo con objetivos como el de no superar una subida de temperatura de 1,5ºC, comparando la situación actual con la situación previa a la revolución industrial.

Hasieran genion bezala, zibilizazio erronka baten aurrean gaude, eta aurrez aurre Jaurlaritzaren eragin esparru eta ahalmenak gainditzen dituen lanak baditugu ere, egoerak partekaturiko esfortzu bat eskatzen du.

Como ya adelantábamos al principio, estamos ante un verdadero desafío para toda la civilización, y aunque eso pase por tareas que sobrepasan los ámbitos y las competencias del Gobierno Vasco, la situación nos exige un esfuerzo compartido.

Gure ustetan, ipar orratza ahalik eta azkarren karbono isurietan neutroa izango den Euskal Herri baterantz begira jarri beharrean gaude, eta horretarako ezinbestekoa da eraldaketa azkar eta eraginkorrak egitea. Prozesu honek gure jendartean inplikazio anitz eta sakonak ekarriko ditu, bai ehun produktiboan, bai mugikortasunean, bai lurralde antolamenduan eta abar, horregatik deritzogu pausu azkar eta eraginkorrak ematea ezinbestekoa dela.

Bajo nuestro punto de vista, debemos posicionar nuestra brújula cuanto antes hacia una Euskal Herria neutra en emisiones de carbono, y para ello es necesario realizar transformaciones rápidas y efectivas. Este proceso conllevará una implicación diversa y profunda por parte de nuestra sociedad, tanto en el tejido productivo, como en la movilidad, en la ordenación del territorio, etc.; por ello creemos que es vital dar pasos rápidos y efectivos.

Mozio honen bitartez, egoeraren larritasuna aitortzea dugu helburu, Larrialdi Klimatikoari behar besteko arreta ipintzeko asmoarekin, aurrerantzean politika publiko guztiak Larrialdi Klimatiko egoeraz kutsa daitezen.

A través de esta moción buscamos declarar la gravedad de la situación, para así dotar a la emergencia climática de la atención que merece, en aras de impregnar todas las políticas públicas de la situación de emergencia climática.

Hori horrela, EH Bilduk Getxoko Udal taldeak honako MOZIOA aurkezten du

Es por ello que el grupo EH Bildu de Getxo presenta la siguiente MOCIÓN:

1. Getxoko Udalak larrialdi Klimatiko egoera deklaratzen du.

1. El Ayuntamiento de Getxo declara la situación de emergencia climática.

2. Getxoko Udalak, Jaurlaritza larrialdi klimatiko egoera deklaratzera, eta honi aurre egiteko beharrezkoa den karbonogabetze prozesua 2040. urtera aurreratzeko moduko plangintza eta politikak abiatzera premiatzen du.

2. El Ayuntamiento de Getxo urge al Gobierno Vasco a que declare la situación de emergencia climática y que active las necesarias políticas y planificaciones para que el necesario proceso de descarbonización se adelante hasta el año 2040.

3. Getxoko Udalak, Jaurlaritza aldaketa klimatikoaren eraginez pairatuko ditugun ondorioetara egokitzeko neurriak hartzera premiatzen du.

3. El Ayuntamiento de Getxo urge al Gobierno Vasco para que active las medidas de adaptación a las consecuencias que sufriremos como consecuencias del cambio climático.

4. Getxoko Udalak, bere eskumenen bailan, Aldaketa Klimatikoari aurre

4. El Ayuntamiento de Getxo declara su

egiteko politika eraginkorrak garatzeko konpromiso irmoa adierazten du.

firme compromiso de desarrollas políticas efectivas para hacer frente al cambio climático, dentro de sus competencias.

5. Getxoko Udalak Aldaketa Klimatikoa eragiten duten udal eskumeneko faktore guztien inguruko diagnosi bat eta 4/2019 Jasangarritasun Energetikoaren Legearen garapena udalerrira egokitzeko hurbilpen lan bat egingo du 8 hilabeteko epean.

5. El Ayuntamiento de Getxo realizará un diagnostico en torno a todos los factores de competencia municipal que produzcan el cambio climático y realizará, asimismo, un estudio de acercamiento para adaptar el desarrollo de la Ley 4/2019 de Sostenibilidad Energética al municipio, en un plazo de 8 meses.

6. Getxoko Udalak, udalerriko egoeraren diagnosia kontuan hartuta, prozesu partehartzaile bat abiatuko du herritarren, auzoen eta beste edozein eragileren ekarpenak barne bilduko dituen plangintza bat osatzeko 2020. tutean zehar.

6. El Ayuntamiento de Getxo, considerando el diagnóstico de la situación del municipio, organizará un proceso participativo en aras a conformar una planificación durante el año 2020 con las aportaciones realizadas por la ciudadanía, los barrios y cualquier otro agente.

7. Getxoko Udalak, udalerriko herritar, eragile eta auzoekin elkarlanean, plangintza hau aurrera eramateko beharrezkoak diren bitarteko tekniko zein ekonomikoak bermatzeko konpromisoa hartzen du, bere gaitasunen araberakoa izanik plangintza gauzatzeko epea.

7. El Ayuntamiento de Getxo se compromete a garantizar todos los medios técnicos o económicos necesarios para desarrollar esta planificación conjuntamente con la ciudadanía, agentes y barrios del municipio; el plazo para desarrollar la panificación dependerá de su capacidad.

8. Getxoko Udalak bat egiten du, larrialdi klimako egoera dela medio, irailaren 27an deituta dagoen nazioarteko grebarekin eta herritar guztiak parte hartzera animatzen ditu.

8. Dada la situación de emergencia climática, el Ayuntamiento de Getxo se adhiere a la convocatoria de huelga internacional convocada para el 27 de septiembre y anima a toda la ciudadanía a secundar dicha huelga.

9. Getxoko Udalak Bando baten bitartez emango die mozio honen berri herritar, auzoei.

9. El Ayuntamiento de Getxo informará a la ciudadanía y a los barrios del municipio de esta moción a través de un bando.

10. Getxoko Udalak Bizkaiko Foru Aldundiari, Eusko Jaurlaritzari eta Espainiako trantsizio ekologikorako ministerioari bideratuko die onartutako mozioa.

10. El Ayuntamiento de Getxo remitirá esta moción a la Diputación Foral de Bizkaia, al Gobierno Vasco y el Ministerio para la Transición Ecológica de España, para su aprobación.

Nerea Guijarrubiak adierazi du aldaketa klimatikoa gero eta herritar eta gazte-mugimendu gehiagok

Nerea Guijarrubia indica que el cambio climático es una preocupación cada vez más compartida por la población y los

partekatzen duten kezka bat dela. Erakundeak beste behin herritarren atzetik joango diren edo, aitzitik, herritarrei aurrea hartu eta prebentzio-neurriak hartuko dituzten planteatu du, hori baita mozioak planteatzen duena.

Paula Amievak zuzenketa transakzional bat aurkeztu eta irakurri du:

*"11. Getxoko Udaleko Osoko Bilkurak udal-gobernuari eskatzen dio Lurralde Batzorde bakoitzean aurkeztu dezala legegintzaldi honetan krisi klimatikoari aurre egiteko hartuko dituen neurriei buruzko analisi kuantitatibo eta kualitatiboa, arloka eta zerbitzuka egindakoa; halaber; honako hauek hartu beharko ditu barne: eragin klimatikoa, Getxoko 2016-2019 Jasangarritasunerako Ekintza Plana, eta, bere eskumenekoak diren gaietan, bat etorri beharko da NBEren Garapen Jasangarrirako Helburuekin.*
*12. Getxoko Udaleko Osoko Bilkurak erabaki du Getxoko trantsizio ekologikorako txosten bat egitea, honako alderdi hauek jorratuko dituena: analisi intersekzionala eta udalerriko egoera eragile politiko, sindikal, ekonomiko zein sozialen parte-hartzearekin, betiere Getxorako 2020-2030 Trantsizio Ekologikorako Plana egiteko xedearekin.*
*13. Getxoko Udaleko Osoko Bilkurak udal-gobernuari eskatzen dio udaleko espediente berri guztietan sartzea eragin klimatikoari buruzko txosten bat, obra edo zerbitzu horrek berotegi efektuko gas-isurketetan eta gainerako aldagai klimatikoetan duen eragina aztertze aldera."*

Nerea Guijarrubiak zuzenketa onartu du.

Paula Amievak esan du aldaketa klimatikoaren muturreko egoera batean gaudela baieztatu daitekeela. Horrek aurrekaririk gabeko neurri sakonak eta azkarrak hartzea eskatzen du, aipatu dituen mundu osoko adituek eskatzen

movimientos de jóvenes son su exponente. Plantea si las instituciones van a volver a ir por detrás de la ciudadanía o se van a adelantar a tomar medidas preventivas que es lo que plantea la moción.

Paula Amieva presenta una enmienda transaccional a la que da lectura:

*"11. El Pleno del Ayuntamiento de Getxo insta al Gobierno municipal a presentar, en cada Comisión de Territorio, un análisis cuantitativo y cualitativo por Área y Servicio de las medidas que tomará para afrontar la crisis climática en la presente legislatura, así como su impacto climático, su incidencia sobre el Plan de Acción Local para la Sostenibilidad 2016-2019 de Getxo y su alineamiento con los Objetivos de Desarrollo Sostenible de la ONU respecto a las materias que son de su competencia.*
*12. El Pleno del Ayuntamiento de Getxo acuerda la conformación de una ponencia para la transición ecológica en Getxo que aborde, desde el análisis interseccional, la situación en el municipio con la participación de las y los agentes políticos, sindicales, económicos y sociales, y cuyo fin sea la elaboración de un Plan de Transición Ecológica para Getxo 2020-2030.*
*13. El Pleno del Ayuntamiento de Getxo insta al Gobierno Municipal a incorporar a todos los nuevos expedientes municipales un informe de impacto climático con el objetivo de analizar la incidencia de dicha obra o servicio en las emisiones de gases de efecto invernadero y demás variables climáticas."*

Nerea Guijarrubia admite la enmienda.

Paula Amieva indica que se puede afirmar que estamos en una situación límite de cambio medioambiental, lo que exige medidas sin precedentes, profundas y rápidas, tal y como reclaman los expertos mundiales a los

dutena betez. Orain arte hartutako pausoak beharrezkoak izan dira, baina ez dira nahikoa egungo kontsumo sistemari begira. Egoera horren aurrean, munduko gazteek erakundeak interpelatu dituzte. Getxoko Udalak aldaketa klimatikoaren aurkako borrokan paper bat du betetzeko eta azkartasunez jardun behar du, 2030. urterako aurreikuspenak oso negatiboak baitira.

que cita. Los pasos dados han sido necesarios pero no suficientes ante el sistema de consumo actual. Ante esta situación la juventud en todo el mundo interpela a las instituciones. El Ayuntamiento de Getxo tiene un papel en esa lucha contra el cambio climático que debe asumir y actuar con celeridad ya que las previsiones para el año 2030 son muy negativas.

Carmen Díazek esan du aldaketa klimatikoa lehen mailako kontu bat dela eta herritarren eta erakundeen jarduketa eskatzen duela. Jarduketak planifikatu egin behar dira, eta mozioan planteatutako puntu asko dagoeneko bere gain hartu ditu Getxoko Udalak, bai jarduketetan eta baita herritarrekiko harremanetan ere. Lan egiten jarraitu behar dugu, baina ez domina bat jartzeko, EH Bilduk mozio honen bidez lortu nahi duen bezala, izan ere, jakin badaki Eusko Jaurlaritza aldaketa klimatikoari buruzko lege bat egiten ari dela, tokiko erakundeek egin beharreko jarduketak jasoko dituena, eta zentzuzkoena lege hori onetsi arte hilabete batzuk itxarotea da.

Carmen Díaz manifiesta que el cambio climático es un tema de primer orden que requiere la actuación de las instituciones y de la población. Es necesario planificar actuaciones y de los puntos planteados en la moción muchos de ellos ya están asumidos por el Ayuntamiento de Getxo en su actuación y también en su relación con la ciudadanía. Es necesario seguir trabajando pero no para ponerse una medalla como pretende EH Bildu con la moción ya que sabe que se está elaborando por el Gobierno Vasco una ley sobre el cambio climático que recoge actuaciones a realizar por las entidades locales y que lo razonable es esperar unos meses a la aprobación de la ley.

Gonzalo Zorrillak adierazi du mozioak aldaketa klimatikoaren eraginak arintzeko helburu batzuk planteatzen dituela. PP alderdia ados dago mozioaren lehenengo puntuan jaso den larrialdi klimatikoarekin. Bigarren eta hirugarren puntuei dagokienez, PPk uste du Osoko Bilkurak Getxoko gobernuari egin behar dizkiola eskaerak, eta beste erakunde batzuei eskaerak egiteari utzi behar zaiola, badagoelako horiek kontrolatuko dituenik. Laugarren puntua deklaratzailea baino ez da eta bosgarren puntua zehaztugabea da, izan ere, udalari buruz ari denean gobernu-taldeari zuzenduz gero udal-

Gonzalo Zorrilla manifiesta que la moción plantea unos objetivos para mitigar los efectos del cambio climático. El PP está de acuerdo con la emergencia climática que se recoge en el punto primero de la moción. Respecto a los puntos segundo y tercero el PP cree que el pleno debe instar al gobierno de Getxo y dejar de instar a otras instituciones que ya tiene quien las controle. Respecto al punto cuarto es solo declarativo y el quinto es impreciso ya que si se refiere al equipo de gobierno, al referirse al ayuntamiento, se excluye a los partidos políticos municipales. La moción no plantea medidas concretas aunque sí

talde politikoak kanpo uzten dira. Mozioak ez du neurri zehatzik planteatzen, baina bai Elkarrekin Podemosek aurkeztu duen zuzenketak. Neurri zuzenak iruditzen zaizkie, esaterako, hiri autobus bat jartzeko PPren proposamen historikoa edo sentsibilizazio kanpainak egitekoa (udal-webgunearen arabera gaur egun egiten ez direnak) eta birziklapenari buruzko informazioa ematekoa. Azkenik, esan du udalak ez duela greba batean parte hartzera animatu behar.

las realiza la enmienda presentada por Elkarrekin Podemos. Califican de medidas concretas, por ejemplo, la histórica propuesta del PP de implantar un autobús urbano o realizar campañas de sensibilización, que actualmente no se realizan según se desprende de la web municipal, así como también informar sobre cuestiones de reciclaje. Finaliza indicando que cree que el ayuntamiento no debe animar a secundar una huelga.

Joseba Arreguik adierazi du talde guztiak daudela kezkatuta funtsean erregai fosilen konbustiotik eratorritako aldaketa klimatikoa dela eta. Neurriak hartu behar dira, eta erakunde bakoitzak bere eskumenen baitan jardun behar du. Aurten, Euskadin ingurumen-jasangarritasunari buruzko legea onetsi dela adierazi du eta, horrez gain, aldaketa klimatikoari buruzko legea ere idazten ari dira, euskal administrazioek, enpresek eta hiritarrek bete beharreko arauak definituko dituena. Lege horretan 5.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietan aldaketa klimatikoaren eraginari buruzko azterlanak egiteko betekizuna aurreikusiko da. Modu global batean jorratu behar dugun arazo global bat da, hala ere, udal jarduketa batzuk eskatzen ditu, besteak beste: birziklapen-helburuak ezartzea, sareetako ur galeraren kontrola, berdeguneak jartzea, eraginkortasun energetikoa hobetzea eta energia berriztagarria kontratatzea. Getxoko Udala dagoeneko ari da alor horietan lan egiten eta Tokiko Agenda 21en planean ere jaso dira, hortaz, orain jarduketa horietan sakontzea dagokigu. Udalaren jarduketak modu parte-hartzailean egin direla gogorarazi du, ingurumen foroan jorratu baitziren talde politiko guztiak bertan zirela.

Joseba Arregui manifiesta que todos los grupos comparten la preocupación por el cambio climático derivados fundamentalmente de la combustión de combustibles fósiles. Hay que tomar medidas y cada institución debe actuar en el ámbito de sus competencias. Indica que en Euskadi este año se ha aprobado la ley de sostenibilidad ambiental y se está elaborando la ley de cambio climático, que definirá normas a implantar por las administraciones vascas, empresas y ciudadanía. Dicha ley prevé la obligación de estudios sobre impacto del cambio climático en municipios superiores a 5000 habitantes. Se trata de un problema global que ha de ser abordado de una forma global pero que exige actuaciones municipales como los objetivos de reciclaje, control de la pérdida de agua en las redes, implantación de espacios verdes, mejorar la eficiencia energética, contratar energía renovable, etc., ámbitos en los que está trabajando el Ayuntamiento de Getxo y se recoge en el plan de Agenda Local 21, por lo que lo que ahora procede es profundizar en las actuaciones. Recuerda que las actuaciones municipales se han hecho de forma participativa en el foro de medioambiente con la presencia de todos los grupos políticos.

Nerea Guijarrubiak adierazi du legeaz haratago, mozioa proposamen politiko bat dela. EH Bilduk bere proposamenak egin ditu esparru guztietan eta osoko bilkuran proposamen politikoak aurkeztea dago. Proposamen batzuk dominak jartzeko direla esatea gaitzetsi du, izan ere, EH Bilduk ez du dominarik eskuratu nahi, proposamen politikoak aurkeztu nahi ditu. Lege bat aurreikusita egoteak ez da eragozpena egoera larri honen aurrean udalek jarduketa zehatzak ezartzeko. Mozioak kontu zehatzak planteatzen ditu, nagusiki, kontu hori agenda politikoan sartzen duelako.

Nerea Guijarrubia indica que más allá de la ley la moción es una propuesta política. EH Bildu en todos los ámbitos ha realizado sus aportaciones y en el pleno se pueden presentar propuestas políticas. Critica que una propuesta se califique como para buscar medallas y otras no, y EH Bildu no busca medallas sino plantear propuestas políticas. Que esté prevista una ley no impide que en esta situación tan grave se actúe desde los municipios con implementación de actuaciones concretas. La moción plantea cuestiones concretas, fundamentalmente al llevar esta cuestión a la agenda política.

Paula Amievak esan du ez dela koherentea politikak martxan jartzeko beharra dagoela esatea eta larrialdi klimatikoa dagoela adierazteari uko egitea. Mozioaren alde bozkatu behar dela uste du.

Paula Amieva manifiesta que decir que se comparte la necesidad de poner en marcha políticas y oponerse a declarar la emergencia climática no es coherente. Cree que es necesario votar a favor de la moción.

Gonzalo Zorrillak adierazi du mozioaren aurka bozkatuko dutela, EH Bilduren proposamenak diagnostikoaz gain ez daukalako neurri zehatzik, hala ere, aitortu du Elkarrekin Podemosek aurkeztu duen zuzenketak mozioa hobetu egin duela, nahiz eta ez den nahikoa mozioa babesteko.

Gonzalo Zorrilla manifiesta que votarán en contra porque la propuesta de EH Bildu no tiene medidas concretas además del diagnóstico y la huelga aunque reconoce que la enmienda de Elkarrekin Podemos mejora algo pero no lo suficiente para apoyar la moción.

Mozioa bozkatu da eta ukatu egin da aldeko 6 botorekin (EH Bildu eta Elkarrekin Podemos) eta kontrako 19 botorekin (EAJ, PP eta PSE-EE).

Sometida la moción a votación es rechazada al obtener 6 votos favor, EH Bildu, Elkarrekin Podemos; 19 votos en contra, PNV, PP, PSE-EE.

## 129.- ELKARREKIN PODEMOS UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: PAPERONTZI GEHIAGO JARTZEA.

## 129.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL ELKARREKIN PODEMOS S/INSTALACIÓN DE MÁS PAPELERAS.

Ignacio Roblesek ondorengo mozioa irakurri du:

Ignacio Robles da lectura a la siguiente moción:

Asko dira Getxon txakurrak dituztenak; gainera, inguruko udalerrietatik ere

Son muchas las personas que tienen perro/s en Getxo, además de todas

jende asko etortzen da gurera txakurrak paseatzera. Jakin badakigu eremu batzuetatik jabe asko igarotzen direla txakurrekin batera, baina ez dituzte beti eskura izaten eremuok garbi mantentzeko beharrezkoak diren baliabideak.

aquellas que vienen a pasear con ellos desde otros municipios colindantes. Todas y todos sabemos que hay zonas muy transitadas por estos dueños y dueñas, y que no siempre se dispone de los medios necesarios para poder mantener las zonas tan limpias como deberían estar.

Alde batetik, egia da Ingurumen Arloak hainbat kanpaina egin dituela espazio publikoak garbi mantentzearen gainean jende kontzientziatzeko; hala ere, nahiz eta oraindik ez dakigun kanpainak esperotakoa bezain eraginkorrak izan ote diren, uste dugu eremu publikoak garbi mantentzea ez dagoela soilik hiritarren eskutan, aitzitik, udalaren eskutan ere badago.

Por una parte, es cierto que se han hecho campañas para concienciar sobre la necesidad de mantener limpios los espacios públicos desde el área de medio ambiente, y aunque no tenemos aún constancia de si han sido tan efectivas como se esperaba, sí que creemos que no está todo en manos de la ciudadanía, sino también del Ayuntamiento.

Hori dela eta, mozio honen bidez zera planteatzen dugu: txakur gehien igarotzen diren eremuak (hondartzetako pasealekuak, Aizkorri, Galea, eta abar...) aztertzea eta espazio horietan paperontziak falta ote diren egiaztatzea, hartara, jabeek gorozkiak jasotzea eta botatzea errazteko.

Por eso, con esta moción queremos plantear que se analice y determine aquellas zonas por donde más tránsito existe de personas con perros (como los paseos de las playas, Azkorri, la Galea, etc.) y de esta forma, se pueda comprobar la falta de papeleras en estos espacios para facilitar que se depositen las heces recogidas por parte de los dueños y dueñas.

Izan ere, jendeak kontzientziazio-kanpainen bidez eskatutakoa bete dezan, udalak horretarako baliabideak eman behar ditu. Hori dela eta, honako ERABAKI-PROPOSAMEN hau helarazi nahi diogu Getxoko Udalaren Osoko Bilkurari:

Debemos ser conscientes de que para que la gente lleve a cabo lo que se les pide a través de las campañas de concienciación, debemos facilitar desde el Ayuntamiento los medios necesarios. Por eso, elevamos al Pleno del Ayuntamiento la siguiente

ERABAKI PROPOSAMENA:

PROPUESTA DE ACUERDO:

1.- Getxoko Udalak konpromisoa hartuko du txakurrak dituzten pertsona gehien igarotzen diren espazioak analizatzeko azterlan bat egiteko.

1.- El Ayuntamiento de Getxo se compromete a realizar un estudio para analizar los espacios de mayor tránsito de personas con perros.

2.- Getxoko Udalak, azterlanaren emaitzak kontuan hartuta, paperontzi gehiago jarriko ditu pasealekuak

2.- El Ayuntamiento de Getxo, en base a los resultados del estudio, implantará más papeleras para adecuar estos

egokitzeko eta txakurren jabeei espazioak garbi mantentzeko lana errazteko.

Ignacio Roblesek adierazi du mozioa aurkeztearen arrazoia jasotako auzotarren kexak izan direla. Berak pertsonalki egiaztatu du Galeatik hurbil dagoenaren moduko txakurren aisialdirako eremuetan bi zaborrontzi baino ez daudela hiru kilometro baino gehiagoko distantzia batera. Horrenbestez, mozioan jaso den eskaera justifikatuta dago.

Carmen Díazek adierazi du mozioaren aurka bozkatuko dutela, izan ere, maskoten gai hau ezin da zaborrontzien azterlan soil bat egitera mugatu; aitzitik, zerbait zabalagoa egin beharko litzateke. Getxon dagoen zaborrontzi kopuruaren berri eman du. Nolanahi ere, ohartarazpen baten modura uler daiteke mozioa, baina ez azterlan bat egiteko modukoa.

Itxaso Masedak adierazi du EH Bilduk aurreko legegintzaldian herritarren foro bat egiteko eskatu zuela, non inplikatutako alderdi guztiek parte hartzeko aukera izango luketen maskoten gaia jorratzeko. Mozioa babestuko dutela esan du.

Alicia González del Vallek esan du mozioaren bidez txakurren aisialdirako eremuetan zaborrontziak falta direla salatzen dela. Hala ere, uste du, horrez gain, udalerri osoan gaikako bilketa egiteko zaborrontziak ere falta direla. Txakurren gorozkiak jasotzeko kanpainek eraginik izan ez dutela uste du, eta bide horretatik jarraitu beharra dagoela. Era berean, pentsatzen du zigarro-puntak jasotzeko zaborrontziak ere jarri beharko liratekeela, oso kutsagarriak direlako. Arestian aipatutakoa dela bide, abstenitu egingo dira.

paseos y facilitar a los dueños y dueñas de perros que mantengan más limpios los espacios.

Ignacio Robles indica que la moción se deriva de las quejas vecinas recibidas y personalmente ha comprobado que las zonas de esparcimiento de perros como la que está cercana a La Galea no hay más que dos papeleras en una distancia superior a 3 km, lo que justifica la petición que se contempla en la moción.

Carmen Díaz indica que votarán en contra ya que ese tema de las mascotas no debe limitarse a un estudio de papeleras sino a algo más amplio. Da datos del número de papeleras que existe en Getxo y que en todo caso la moción puede entenderse como un aviso para poner atención pero no para realizar un estudio.

Itxaso Maseda indica que EH Bildu en la anterior legislatura ya pidió la creación de un foro ciudadano con presencia de todas las partes implicadas para tratar el tema de las mascotas. Indica que apoyará la moción.

Alicia González del Valle indica que la moción denuncia la falta de papeleras en la zona de esparcimiento de perros. Cree que además también hace falta más papeleras para la recogida selectiva de basuras en todo el municipio. Estima que las campañas sobre recogida de heces no han dado resultado y hay que insistir en las mismas. Opina que también es necesario colocar papeleras para la recogida de colillas por sus grandes efectos contaminantes y que por lo expuesto se abstendrán.

Joseba Arreguik adierazi du Getxon 1.600 zaborrontzi baino gehiago daudela. Horrek esan nahi du berrogeita hamar biztanleko paperontzi bat dagoela. Mozioa tranpa bat iruditzen zaio. Paperontzien kokapena azterlan historiko baten araberakoa da, eguneratu egiten dena. Bizkaiko Foru Aldundiak berriki egin ditu mantentze-lanak Galean. Gainera, hiri-eremuek ez bezalako tratamendu jasotzen duen ingurune bat da paperontziei eta bestelako ekipamendu publikoei dagokienez. Paperontzien eta edukiontzien inguruko datuak eman ditu, eta horri buruz kexarik aurkeztu ez dela esan du.

Joseba Arregui indica que hay más de 1.600 papeleras en Getxo, lo que supone una papelera prácticamente por cada cincuenta habitantes. Califica la moción como una moción trampa. La ubicación de las papeleras responde a un estudio histórico que se va actualizando. La Galea ha sido hasta hace poco objeto de mantenimiento para la Diputación Foral de Bizkaia y se trata de un entorno natural que tiene un tratamiento en cuanto a papeleras y otros equipamientos públicos diferente de los entornos urbanos. Da datos de papeleras y contenedores, así como la no existencia de quejas al respecto.

Mozioa bozkatuta, baztertu egin da aldeko 6 botorekin ( EH Bildu, Elkarrekin Podemos), kontrako 14 botorekin (EAJ-PNV, PSE-EE) eta 5 abstentziorekin (PP).

Sometida la moción a votación es rechazada al obtener 6 votos a favor, EH Bildu, Elkarrekin Podemos; 14 en contra, PNV, PSE-EE; 5 abstenciones, PP.

**130.- ELKARREKIN PODEMOS UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: JAIETAN MUGIKORTASUN MURRITZEKO PERTSONENTZAKO ZONAK GAITZEA.**

**130.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL ELKARREKIN PODEMOS S/HABILITAR ZONAS DE MOVILIDAD REDUCIDA EN FIESTAS.**

Paula Amievak mozioa irakurri du. Mozioan adierazitakoa berretsi du, zera adieraziz: duela hiru urte gobernu-taldearen abstentzioari esker mozio bera onetsi zen, gainera, orain aurkeztu den mozioak EH Bilduk aurkeztutako zuzenketa barne hartzen du.

Paula Amieva da lectura a la moción. Reitera lo indicado en la moción incidiendo en que la misma fue aprobada con la abstención del equipo de gobierno hace tres años y que la presente incorpora también una enmienda presentada por EH Bildu.

Carmen Díazek ere uste du mugikortasun urria duten pertsonen eta urritasun sentsorialak dituzten pertsonen irisgarritasuna hobetzeko lan egiten jarraitu beharra dagoela. Getxo saritua izan da arlo horretan egin duen lanari esker. Hala ere, ez dago ados zuzenketaren ikuspuntuarekin, azterlan

Carmen Díaz comparte la necesidad de seguir avanzando en la accesibilidad a personas con movilidad reducida o deficiencias sensoriales. En este campo Getxo ha sido premiado por su labor. No comparte el enfoque de la moción que pide un estudio excesivamente concreto y cree que para la

zehatz bat egiteko eskatzen baitu. Ildo horretatik, uste du horrelako ekitaldietan irisgarritasuna bermatu ahal izateko hiritarrak hezteko neurriak hartu behar direla. Mozioa okerrekoa dela uste du, desgaitasun askori dagokienez. Halaber, planteatzen den azterlana oso mugatua dela pentsatzen du, eta azterlan bat egitekotan helburu zabalago bat izan beharko lukeela.

accesibilidad en estos actos hay que incidir también con medidas educativas en la ciudadanía. Estima que la moción es inconcreta respecto a muchas discapacidades y el estudio que se plantea es muy limitado y que de hacerse el estudio su objetivo debe de ser más amplio.

Cristina Zamorak esan du EH Bilduk mozioa babestuko duela, proposatu diren neurriak egokitzat jotzen dituztelako. Kezkagarria iruditzen zaie duela hiru urte onetsitako mozio bat oraindik egikaritu gabe egotea.

Cristina Zamora indica que EH Bildu apoyará la moción ya que las medidas que se proponen son apropiadas. Ven preocupante que una moción aprobada hace tres años aún no se haya ejecutado.

Eduardo Andrade jaunak adierazi du mozioa babestuko dutela, 2016an egin zuten bezalaxe. Gauzak egin egiten direla uste du, baina, hala ere, hobetu daitekeen arlo bat da, beraz, mozioa babestuko dute.

Eduardo Andrade manifiesta que van a apoyar la moción como aprobaron la del año 2016. Comparte que se hacen cosas pero que es ámbito mejorable y de ahí su postura de apoyo a la moción.

Irantzu Uriartek adierazi du Getxon ekitaldi asko antolatzen direla bai tokiko erakundeen aldetik eta baita erakunde pribatuen aldetik ere. Kultura Batzordeak eta Getxo Kirolakek antolatzen dituzten ekitaldietan hartzen diren neurrien berri eman du, eta ekitaldiok egiteko espazioak eta instalazioak aipatu ditu. Halaber, adierazi du espazio gehienetan arreta ematen zaiela irisgarritasun-beharrizanei. Bereziki aipatu ditu batzordeek antolatzen dituzten jaiak eta horiekin batera udalak antolatzen dituen jarduerak.

Irantzu Uriarte manifiesta que en Getxo hay diferentes eventos organizados tanto desde la institución local como por entidades privadas. Da cuenta de las medidas que se adoptan por parte de la comisión de Cultura y Getxo Kirolak en los actos que se organizan, distinguiendo los espacios e instalaciones en los que se celebran los eventos, manifestando que se atiende a las necesidades de accesibilidad en la gran mayoría. Hace una especial referencia a las fiestas que organizan las diferentes comisiones y las actuaciones que se realizan en colaboración con las mismas.

Paula Amievak aitortu du ez dugula zerotik hasi behar, eta azterlanak egokitutako eremurik gabeko tokiak izango lituzkeela xede. Gainerako taldeen zuzenketak barne hartzeko aukera eman dute, baina ez da zuzenketarik aurkeztu. 2016ko mozioan

Paula Amieva reconoce que no se parte de cero y el estudio se limita a donde no existan zonas habilitadas. Han estado abiertos a enmiendas de los grupos para mejorar pero no se han producido. En la moción de 2016 se tuvo en cuenta a asociaciones de

kaltetutakoen elkarteak hartu ziren kontuan. Horrez gain, zera esan du: ekitaldi askotan irisgarritasun fisikoa bermatuta dagoen arren, askotan ez da irisgarritasun sentsoriala bermatzen; horregatik planteatu dute gai hori mozioan. Autobabeserako planek ez dute bermatzen mugikortasun urriko pertsonek edo desgaitasunen bat duten pertsonek gainerakoek beste gozatzeko aukera izatea.

afectados. Indica que si bien la accesibilidad física en muchos eventos está garantizada no está garantizada la sensorial por lo que se plantea también este tema en la moción. Los planes de autoprotección no garantizan que la forma de disfrute de las personas con movilidad reducida o discapacidad sea la misma que el resto de los asistentes.

Mozioa bozkatu da eta hau izan da emaitza: 11 boto alde (PP, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos) eta 14 abstentzio (EAJ eta PSE-EE).

Sometida la moción a votación obtiene el siguiente resultado: 11 votos a favor, PP, EH Bildu, Elkarrekin Podemos; 14 abstenciones, PNV, PSE-EE.

Gehiengoak onartutako mozioak:

Por mayoría se aprueba la siguiente moción:

Elkarrekin Podemosek berriro jorratu nahi du 2016ko irailean onetsia izan zen mozioa; horiek horrela, Udalbatzari berriro proposatzen dio jai eta kirol ekitaldietarako eta udalerriko jaietarako espazio egokiak eskaini daitezen mugikortasun murriztua duten pertsonek, adinekoek edo mendetasuna daukatenek erabili ahal ditzaten.

Desde Elkarrekin Podemos, retomamos esta moción que ya fue aprobada en septiembre de 2016 para volver a proponer al pleno municipal que se habiliten espacios en eventos festivos, deportivos y en las fiestas del municipio para personas con movilidad reducida, mayores o dependientes.

Ekimen honen bidez, gure udalerriko jaiak gozatzeko arazo gehien dituztenei jaiak leku egoki batetik ikusi ahal izateko aukera eman gura diegu, eta ez besteek dituzten baldintzak baino txarragoetan. Izan ere, berdintasunaz eta bazterketa ezaz ari garenean, kolektibo guztiak izan behar ditugu kontuan.

Con esta iniciativa pretendemos que se facilite que quienes más dificultades tienen para disfrutar de las fiestas de nuestro municipio, puedan presenciarlas desde un lugar de privilegio y no en condiciones inferiores al resto. Porque cuando hablamos de igualdad y de la no discriminación, es necesario contar con todos los colectivos.

Ikuspuntu teknikotik, desgaitasuna duten ikusleentzako espazio berezi honetarako aukeratzen den lekuak sarbide esklusiboa izango du, behar bezala seinaleztatua, teknikari eta artistek agertokira iristeko erabiltzen duten sarrera berean. Leku berezi hau oso hurbil egongo litzateke artistek

Desde un punto de vista técnico, la ubicación elegida para este espacio específico para el público con discapacidad tendrá un acceso exclusivo y debidamente señalizado por la misma entrada que técnicos y artistas utilizan para llegar hasta el escenario. Ante la cercanía que este

jardungo luketen plataformatik. Horregatik, arreta berezia jarri beharko litzateke aurrez aurre ez jartzeko, desgaitasuna duten pertsonek ekitaldia ikusteko helburuz lepoa okertu behar ez izateko. Egokiena izango litzateke zona hori albo batean jartzea, bertan dagoen jendeak ikuskizunak erosoago ikusi ahal izateko.

"reservado" tendrá a la plataforma donde actuarán los y las artistas, se debería tener especial cuidado de que no esté en frente para que las personas con discapacidad no tengan que forzar su cuello para disfrutar de los eventos. Lo más adecuado sería habilitar esta zona en un lateral para que el público que se encuentre en ella pueda ver con mayor comodidad los espectáculos.

Horregatik guztiagatik, Elkarrekin Podemosek ondoko ERABAKI PROPOSAMENA ekarri du berriro osoko bilkura honetara:

Por todo esto, desde Elkarrekin Podemos volvemos a traer a este pleno municipal la siguiente PROPUESTA DE ACUERDO:

1. Getxoko Udalak mugikortasun murriztua duten pertsonentzat prestatutako zonak ez dauzkaten udalerriko jaiak eta ekitaldiak aztertzea: kontzertuak, kirol ekimenak, pregoiak, ekitaldi jendetsuak eta abar.

1. Que el Ayuntamiento de Getxo realice un estudio de las festividades y eventos municipales donde no existan zonas habilitadas para personas con movilidad reducida: conciertos, eventos deportivos, pregones, actos con público, etc.

2. Getxoko Udalak zona bat erreserbatzea eta prestatzea gurpildun aulkian doazen edo mugikortasuna murriztuta duten pertsonek honelako ekitaldiak hobeto ikusi ahal izateko. Era berean, beraien segurtasuna bermatzea eta zerbait gertatzen bada beraien ebakuazioa erraztea. Eremu hori agertokia hesiz inguratzen duen zonaren albo batean egongo da, pertsonen segurtasuna bermatzeko.

2. Que el Ayuntamiento de Getxo habilite una zona reservada para que las personas en silla de ruedas o con movilidad reducida tengan una mejor visibilidad en este tipo de eventos, al mismo tiempo que se garantiza su seguridad y se facilita su evacuación en caso de producirse algún incidente. Esta área se ubicará en un lateral de la zona vallada que rodea el escenario para mantener la seguridad de estas personas.

3. Mugikortasun murriztua duten pertsonentzat aurreikusitako ekintzez gain, Getxoko Udalak azterlan bat egingo du, beste motatako desgaitasunak dituzten pertsonen (itsuak, gorrak, etab) irisgarritasuna errazteko neurriak analizatzeko eta azterlanaren ondorioak Udalbatzarekin partekatzeko.

3. Además de las acciones consideradas para las personas con movilidad reducida, que el Ayuntamiento de Getxo realice un estudio para analizar qué medidas se pueden articular para favorecer la accesibilidad de las personas con otro tipo de discapacidades como por ejemplo: ciegos; sordos etc. y compartir sus conclusiones con este Pleno”.

## GALDE-ESKEAK

Ibon Rodríguezek alkateari eskatu dio Udal Erregelamendu Organikoaren interpretazioaren inguruan —mozioen tratamenduari dagokionez— aurkeztu duen kexari eta agertu duen desadostasunari erantzun diezaiola; izan ere, arbitrarioa eta mugagarria dela uste du, eta birplanteatu dadin eskatu du. Horrez gain, beranduenez irailerako egungo Udal Erregelamendu Organikoaren testu bategina idatz dadin eskatu du.

Paula Amievak bat egin du Ibon Rodríguezen Udal Erregelamendu Organikoari buruzko eskaerarekin eta galdetu du ea Udal Erregelamendu Organikoaren aldaketari berriro ekingo ote zaion, beharrezkotzat jotzen baitu.

Alkateak erantzun du Udal Erregelamendu Organikoaren aldaketa partziala berriki onetsia izan dela eta momentuz indarreko testuarekin jarraituko dugula.

Nerea Guijarrubiak uztailaren 17ko 3569/2019 Dekretuaren inguruan galdetu du. Horren bidez, Gobernu Irekia eta Modernizazioa Arloari —zehazki, Komunikazio atalari— atxikita zegoen langile bat lanpostuz aldatu dute, eta Alkatetzaren ondoko bulego batean jarri dute. Halaber, alkatearen konfiantzazko langile bat, 1604 kodedun aldi baterako langilea, Alkatetzako administrari gisa agertzen dena, Santa Klarara lekualdatu dira, Hirigintza Sailera. Amaitzeko, galdetu du ea zer eginkizun izango duen pertsona horrek.

Alkateak erantzun du Alkatetzara lekualdatua izan den pertsona Alkatetzaren arloko komunikazioaz arduratzen dela, alkatearen agendaren

## RUEGOS Y PREGUNTAS

Ibon Rodríguez ruega a la Alcaldesa que conste en acta su queja y disconformidad con la interpretación qu ese ha realizado del ROM respecto al tratamiento de las mociones ya que entiende que es limitativa y arbitraria y pide que se reconsidere la misma. Asimismo pide que a lo más tardar para septiembre se redacte un texto consolidado del actual ROM.

Paula Amieva se adhiere al ruego de Ibon Rodríguez sobre el ROM y pregunta si se va a retomar la modificación del ROM, cuestión que entiende necesaria.

La Alcaldesa responde que la modificación parcial del ROM ha sido de muy reciente aprobación y que de momento se va a seguir con el texto vigente.

Nerea Guijarrubia pregunta por el Decreto 3569/2019, de 17 de julio, en el cual se cambia de puesto a una trabajadora adscrita al área de Gobierno Abierto y Modernización, concretamente en el ámbito de Comunicación, para ubicarla en un despacho al lado de la Alcaldía. Asimismo indica que un personal de confianza del Alcalde, personal eventual con el código 1604 que figura como administrativo de Alcaldía ha sido trasladada a Santa Clara al área de Urbanismo. Finaliza preguntando qué funciones va a realizar esta persona.

La Alcaldesa le contesta que la persona trasladada a la Alcaldía se encarga de la comunicación en el ámbito de la Alcaldía, lo cual incluye llevar parte de

zati bat kudeatzea barne. Bestalde, adierazi du Santa Klarara lekualdatua izan den langileak administrazio-lan osagarriak egingo dituela Alkatetzarentzat eta gobernu-taldearentzat.

la agenda de la Alcaldesa y que la persona trasladada a Santa Clara realiza sus labores de apoyo administrativo también a la Alcaldía y al equipo de gobierno.

Nerea Guijarrubiak galdetu du ea nork egingo duen pertsona horrek orain arte Komunikazio atalean egin izan duen lana. Alkateak erantzun du gai horren inguruan lanean ari direla.

Nerea Guijarrubia pregunta quién va a realizar el trabajo que venía realizando en Comunicación esa persona, siendo contestada por la Alcaldesa que se está trabajando sobre esa cuestión.

Ibon Rodríguezek alkateari galdetu dio ea badakien osoko bilkuran Alkatetzarako administrari bat onetsi zela, eta ez Hirigintzarako bat. Hortaz, aldaketa hori azaltzeko eskatu dio.

Ibon Rodríguez pregunta a la Alcaldesa si es consciente que en el pleno se aprobó un administrativo de Alcaldía y no de Urbanismo y pide que se explique el cambio.

Alkateak erantzun du aurreko erantzunean azaldu duela hori.

La Alcaldesa le contesta que ya ha explicado en la respuesta anterior.

Gai gehiagorik ez dagoenez, Lehendakari andreak bilkura bukatutzat eman du egun honetako ordu bata eta hogeitabost minutu direnean. Bertan gertatutakoa, nik, idazkari nagusiak, jaso eta egiaztatu dut akta honetan eta alkate andreak eta biok sinatu dugu. Eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

Y no habiendo otros asuntos de que tratar, la Sra. Presidenta levantó la sesión siendo las trece horas y veinticinco minutos de este día, extendiéndose con su resultado la presente acta, firmando en unión mía la Sra. Alcaldesa, de todo lo cual yo, el Secretario, doy fe.